


Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %0,1 gehitu ziren 2017ko laugarren hiruhilekoan

Urte osoan, %0,8ko gehikuntza metatua.

Eustaten datuen arabera, 2017ko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmentak %0,1 gehitu ziren prezio finkoetan aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Gasolindegia sartu gabe, salmentak %0,4 gehitu urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizea %1,1 jaitsi, urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%). Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Elikagaien salmentak %1,4 gehitu 2017ko laugarren hiruhilekoan; Gainerako produktuenak %0,5 gutxitu eta Automobilgintzarako erregaiarenak %2,0, beti ere 2016ko aldi beraren aldean eta prezioen eraginik gabe.

Elikagaien espezializatua %5,3 jaitsi; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatua %7,7 gehitu.

Kontsumoko beste ondasunetan espezializatua %2,4 gehitu. Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatua 6,8% jaitsi; Pertsonaren ekipamendua espezializatua %0,6 ; Etxeko ekipamendua %0,3, prezio finkoetan.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. IV/2017

	PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera		
Euskal AE	0,1	-1,1
Araba/Álava	-0,3	-1,1
Bizkaia	-0,2	-1,1
Gipuzkoa	0,7	-1,3
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera		
Elikagaiak	1,4	-0,4
Elikagaietan espezializatuta	-5,3	-1,7
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	7,7	0,8
Beste produktuak	-0,5	-2,8
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-0,6	1,1
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	-0,3	-1,8
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	2,4	0,0
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-6,8	-7,1
Automoziorako erregaia	-2,0	-0,6
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	0,4	-1,7
ENPLEGU INDIZEA		
Euskal AE	1,0	0,3

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Lurraldeetako salmentak: Araban %-0,3; Gipuzkoan %+0,7; Bizkaian %-0,2; termino errealetan, txikizkakoan guztira.

Euskal AE osoan, 2017ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, txikizkako merkataritzan okupatuen kopurua %0,3 gehitu da laugarrenean.

2017ko balantzea

Urte osoan, txikizkako merkataritzaren salmentek %0,8ko gehikuntza erreal metatua. Gasolindegia sartu gabe, salmentetan %1,1eko gehikuntza 2017ko datu metatuetan 2016koen aldean.

Urte osoan, prezio finkoetan: Gipuzkoan %+1,3, Bizkaian %+0,6, Araban %+0,5.

Euskal AEn, 2017an, aurreko urteko batez bestekoaren aldean, txikizkako merkataritzako enplegua %1,0 gehitu da.

2. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko aldakuntza-tasa

	PREZIO FINKOAK		
	2017	2016	Δ%
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	91,8	91,1	0,8
Araba/Álava	97,7	97,2	0,5
Bizkaia	90,4	89,9	0,6
Gipuzkoa	91,3	90,2	1,3
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	96,1	95,1	1,1
Beste produktuak	89,8	88,8	1,2
Automoziorako erregaia	85,4	87,8	-2,7
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	92,5	91,5	1,1
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	92,5	91,6	1,0

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Informazio gehiago.

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62